2016-V-27
Número **492.** zenbakia

ELA
EUSKAL SINDIKATUA
www.ela.eus

astekaria

# EDITORIALA

## Pobrezia energetikoa, errealitatea gurean

**Gutxitan aipatzen den energia pobreziari buruzko azterketa argitaratu berri du ACA ingurumen zientzien erakundeak. Horren arabera, energia pobrezia biztanleriaren zati esanguratsu batek pairatzen du. Nahiz eta zailtasun asko dauden neurketa egiteko, Hego Euskal Herrian 242.000 pertsonek errentaren %10 baino gehiago bideratu behar dute energiaren kostuei aurre egiteko.**

**Horrez gain, 138.000 lagunek ezin dute etxearen tenperatura maila egoki batean mantendu urte osoan zehar eta 121.000 atzeratu egin dira energia gastuak ordaintzerako orduan. Datu handiena, 348.000 pertsonek pairatzen dutena, etxearen egoerari buruzkoa da: hezetasunak, itoginak edota usteldurak dituzten pertsonen kopurua Hego Euskal Herrian biztanleriaren zortzirena delarik (%12,3).Egoera latz honi aurre egiteko ematen diren proposamenak ugari badira ere (gobernu maila ezberdinei, energia enpresei eta bestelako erakundeei luzatzen baitzaizkie), aipagarrienak ondorengoak dira: etxebizitzen birgaitze energetikoa burutzea, gizarte bonoa beharretara egokitu eta dirulaguntzak handitzea, hornidura eteteak ekiditea, mikro efizientzia baliatzea, energia eta kontsumo formazioa sustatzea, eta informazioa eta estatistikak bildu eta erabiltzea.**

**Pobrezia maila eta gizartean dauden ezberdintasun ekonomikoak hazten ari dira azken urteotan. Ekonomia Lankidetza eta Garapenerako Antolakundean gertatzen den bezalaxe azken 30 urteetako mailarik altuenean dago pobrezia eta aberats eta txiroen arteko tartea. Eta errealitate honen adibideetako bat hauxe da, hain justu: Euskal Herri osoan zehar milaka eta milaka lagunek sufritzen duten pobrezia energetikoa. Beste hainbat arlotan aipatzen dugun bezala, eta hemen bertan irakurri ahal izan denez, badago egoera hau iraultzerik. Baina, beti bezala, horretarako (ere) borondate politikoa behar da.**

**1.200 EUROTIK GORA**

### Negociar y decidir en Hego Euskal Herria es la mejor herramienta para mejorar nuestras condiciones laborales

# LOS CONVENIOS ESPAÑOLES NOS LLEVAN A LA MISERIA

ELA presentó el 23 de mayo la campaña informativa que ha desarrollado para informar de las graves consecuencias que supone la estatalización de la negociación colectiva para la clase trabajadora de Euskal Herria. Para ello ELA socializará una serie de materiales informativos que ya se están repartiendo y difundiendo por toda Hego Euskal Herria.

En la presentación de la campaña, el secretario general de ELA, Adolfo Muñoz, se marcó tres retos principales como ejes. "El primer eje es destacar que los convenios estatales aumentan la pobreza. Estos convenios son claramente inferiores con respecto a los acordados aquí, con enormes diferencias en aspectos como salarios o jornada. El segundo eje de trabajo es reivindicar que las y los trabajadores de Hego Euskal Herria queremos negociar nuestros convenios aquí, no en Madrid. Y, por último, el tercer eje es algo tan básico como exigir el respeto a las mayorías democráticas. Son las y los trabajadores de Hego Euskal Herria quienes determinan unas u otras mayorías sindicales, por lo que nos parece impresentable que mayorías sindicales que no se han elegido aquí nos impongan condiciones laborales de miseria".




Muñoz destacó que partiendo de estos ejes de trabajo ELA luchará para que las y los trabajadores vascos podamos tomar aquí las decisiones que afectan a nuestras condiciones laborales. "Es el único camino para detener las nefastas consecuencias de los convenios estatales. Solo negociando los convenios en Hego Euskal Herria podremos mejorar nuestras condiciones laborales. Es evidente que luchamos contra una patronal que quiere sacar ventaja de las reformas que se aprueban en Madrid para seguir precarizando nuestras condiciones laborales. Pero no solo es la patronal quien prefiere los convenios españoles, las y los neoliberales vascos también los prefieren. Por ejemplo, MCC no duda en aplicar la legislación y los convenios estatales e imponer peores condiciones laborales".

*(Sigue en la página 2)*

### ELAk fiskalitatearen inguruko jardunaldia egin zuen maiatzaren 24an Bilbon

# "ABERATSEK ETA KAPITALAK ZERGARIK EZ ORDAINTZEA ERABAKI DUTE"

ELAk zerga-ereduaren inguruko formazio jardunaldia egin zuen maiatzaren 24an Bilbon. Maiatzaren 20an Iruñean egin bezala, egungo eredu fiskalaren inguruan hausnartzeaz gain sindikatuak gai honen inguruan dituen proposamenak zabaldu nahi izan zituen. EHUk Abandoibarran duen Paraninfoan




egindako ekitaldiaren ostean, manifestazioa egin zen Bizkaiko Foru Aldundiaren egoitzaraino. Formazio jardunaldian Iñaki Salaberrik, Janire Landaluzek, Iñaki Zabaletak, –azterketa bulegoko kideak–, Mikel Novalek –gizarte politiken arduraduna– eta Adolfo Muñozek hartu zuten parte.

**Iñaki Salaberri**k fiskalitatearen garrantzia azpimarratu zuen, horrek baldintzatzen baitu administrazioek zenbat eta nola biltzen duten dirua. "Fiskalitate honekin ezinezkoa da justizia soziala egotea. Eta ezinezkoa da ere fiskalitate bidezko bat izatea zerga-iruzurraren eta paradisu fiskalen aurka borrokatzen ez bada. Honek oso ondorio larriak ditu, herritar xumeok sufritzen dugun ondorioak. Euskal Herrian herritarrok dirutza galtzen dugu urtero aberatsek paradisu fiskalak erabiltzeagatik".

*(2. orrialdean jarraitzen du)*

"Los sindicatos de ámbito estatal –UGT y CCOO– también prefieren España. Esos sindicatos, aunque dicen defender la negociación sectorial, no dudan en usar las reformas laborales y de negociación colectiva para impedir en muchos casos que la representación mayoritaria vasca decida dónde y qué negociar. Por su parte, el Gobierno Vasco impone la aplicación de esos convenios estatales en las subcontratas que dependen de él. De esta forma, bajando los salarios y precarizando nuestras condiciones laborales, intenta cuadrar los ajustes en los presupuestos, recortando nuestros salarios".

## OBJETIVOS EN LA NEGOCIACIÓN COLECTIVA

Joseba Villarreal, responsable de negociación colectiva, destacó los objetivos que se plantea ELA para poder detener las nefastas consecuencias de los convenios españoles. "Subidas salariales vinculadas al IPC, frenar la precariedad, impedir retrocesos en las condiciones pactadas, garantizar la aplicación de los convenios firmados y la ultraactividad… Esos son algunos de los objetivos que tenemos en la negociación colectiva. Y para ello queremos impulsar convenios vinculantes. Las sucesivas reformas han establecido que los convenios de sector dejen de ser un mínimo obligatorio. Además, teniendo en cuenta el bloqueo que la patronal ejerce sobre la mayoría de los sectores, es imprescindible trabajar para impulsar convenios colectivos vinculantes".

Villarreal alerta de la necesidad de que las decisiones sobre nuestras condiciones laborales se tomen aquí. "No es solo cuestión de kilómetros, también es una cuestión de dignidad. Mientras la patronal y los sindicatos estatales continúen negociando los convenios estatales en Madrid, nuestras condiciones seguirán empeorando. Si analizas los convenios y acuerdos estatales, sectoriales y de empresa que CEOE, CCOO y UGT vienen firmando en España al amparo de las reformas del PSOE (2011) y del PP (2012), la conclusión es más que evidente: la estatalización se realiza para empeorar sensiblemente las condiciones de trabajo".

Como ejemplo Villarreal mencionó lo sucedido recientemente con el Convenio de Restauración estatal. "La patronal española de hostelería ha impugnado el Convenio de Hostelería de Bizkaia ante el Tribunal Superior de Justicia del País Vasco. Esta patronal pretende imponer en el ámbito de la CAPV la aplicación del Convenio de Restauración Estatal suscrito por ella y por los sindicatos CCOO y UGT, anulando el Convenio de Hostelería. Es inadmisible que dicha patronal y los sindicatos CCOO y UGT (que solo tienen el 18% de representación en este sector en la CAPV) firmen un convenio que, de aplicarse en la CAPV, supondría una rebaja salarial del 50% y un incremento de jornada de 50 horas para los trabajadores y trabajadoras afectadas. Anular este convenio supondría extender la miseria y precariedad laboral en este sector. Es tremendo, hablamos de una rebaja salarial del 50%…".

## Leire Txakartegi, genero arduraduna

## "ESTATALIZAZIOAREKIN EMAKUMEAK GARA GALTZAILE HANDIENAK"



**Ezker eskuin, Adolfo Muñoz, Leire Txakartegi eta Joseba Villarreal, negoziazio kolektbioaren estatalizazioaren aurkako kanpainaren aurkezpenean.**

Agerikoa da negoziazio kolektiboaren estatalizazioa arazo larria dela Euskal Herriko langileentzat. Hala ere, Leire Txakartegik azpimarratzen duenez emakumeak dira galtzaile nagusiak. "Negoziazio kolektiboa estatu mailara bideratzen ari diren sektore gehienak emakumeak nagusi diren sektoreak dira. Hor daude, esaterako, errestaurazioa, ileapaindegiak, merkataritza, kontserbak, menpekotasun egoeran daudenen zaintza, telemarketing… Zerbitzuei lotutako sektoreak dira nagusiki, eta bertan lan egiten dutenen erabateko gehiengoa –%88,8– emakumeak dira".

Honek emakumeen lan eta bizi baldintzetan sortuko dituen ondorio kaltegarrien inguruan ohartarazten du Txakartegik. "Beti bizi izan dugun prekarietatea areagotu besterik ez du egingo. Askotan salatu izan dugu prekarietate honen oinarrian sexuaren araberako lan banaketa dagoela. Eta, enplegua ere sexuaren arabera banatzen da. Emakumeak enplegu batzuetan gaude, baina beste bazuetan ez. Estatalizazioak gutxietsi egiten ditu emakumeak nagusi diren lanak, balorea kentzen die. Eta okerrena da aurrerantzean sexuaren araberako lan banaketa indartu egingo dela".

ELAk berriki atera duen txosten batek jasotzen duenez gizon eta emakumeen arteko soldaten aldea hazi egin da azken urteetan. Gaur egun gizonezko batek emakume batek baina %33,9 gehiago irabazten du. Estatalizazioarekin alde hau handituko da. "Agerikoa da alde hau are eta gehiago zabalduko dela. Gainera, soldatez harago badira begiratu beharreko beste zenbait arlo. Enplegu prekarioenak emakumeonak dira egun: aldibaterakotasuna %27koa da, hamar emakumetik hiruk baina gehiagok kontratu partzialak dituzte, zaintza eta etxeko lanen banaketa zeharo bidegabea da...".

Guzti hau kontutan hartuta ELAko berdintasun arduradunaren ustez argi dago emakumeak pobre eta menpeko nahi dituztela. "Estatistika guztiek argi uzten dute pobrezia egoeran aurkitzen diren gehienak emakumeak direla. Eta hau ez da kasualitatea. Pobrezia ekonomikoak emakumeon menpekotasun egoera areagotuko du, eta honek emakumeok menpeko subjektuak garen gizarte eredu batean sakonduko du".




**Iñaki Zabaleta**k Hego Euskal Herriko zerga-sistemaren inguruan hausnartu zuen. "Gurean dagoen presio fiskala Europar Batasuneko baxuenetakoa da (%30,5). Aski da EB-28ko bataz-bestekoarekin alderatzea (%39,4) dagoen tarte handiaz jabetzeko. Ez gara mintzo Danimarkako presio fiskalarekin parekatzeaz, ez; EB-28ko bataz-besteko presio fiskala gurera ekarriko bagenu administrazio publikoek urtean 7.600 milioi euro izango lituzkete gizarte gastura bideratzeko. Honek agerian uzten du murrizketak aukera politiko bat direla. Egun dugun fiskalitatea agintean dauden lagunen ideologiaren ispilu da".

**Janire Landaluze**k zerga-sistema bidegabe bat izatearen ondorio larriak salatu zituen. "Urtero gero eta diru gutxiago bideratzen da osasunera edo hezkuntzara, eta arrazoia argia da: administrazioek uko egiten diote diru gehiago biltzeari. Fiskalitatea langileon bizkar egiten da; zerga zuzenen bidez bildutakoaren %92a langileon errentetatik jasotzen da. Langileok, bataz beste, 23.000 eurotako irabaziak aitortzen ditugu; enpresariek eta jarduera ekonomikoagatik aitortzen diren irabaziak, berriz, 11.900 euro dira. Hamar enpresetatik zazpik galerak deklaratzen dituzte, eta hamarretik zortzik galerak edo 6.000 eurotik beherako irabaziak. Soilik hamar enpresatik batek (%10,1) aitortzen ditu urtean 60.000 eurotik gorako irabaziak. Ez dago hau sinisterik. Honen atzean onartutako zerga-iruzur erraldoi bat dago".

Gizarte politiken arduradun **Mikel Noval**ek egoera bidegabe hau aldatzeko ELAk dituen alternatibetan sakondu zuen. "Agintariek esaten digute ezin dela dagoena baina gehiago gastatu. Kontua zera da: ez digutela esaten biltzen dena baina askoz diru gehiago bildu daitekeela. Zorionez alternatibak badaude fiskalitate eredu berri bat lortzeko. Zerga iruzurraren aurkako borrokan bide luzea geratzen da egiteko. Soldatapekoak ez diren errentak gehienez lau urtetik behin ikertu beharko lirateke. Zerga iruzurraren aurkako baliabideak biderkatu beharko lirateke; arlo honetan ere Europako herrialde aurreratuenekiko oso atzean gaude. Zergen ordainketa saihestea helburu duten trikimailu bidegabeekin ere amaitu beharra dago. Egun enpresek eta kapital handiek hamaika amarru dituzte dagokiena baina gutxiago ordaintzeko. Azkenik, eta iruzurrarekin amaitzeko ezinbesteko neurri gisa, zergei buruzko polizia unitateak sortu beharko lirateke".

Iruzurraren aurkako borrokaz gain, zergen egituran ere aldaketa sakonak egitearen garrantzia azpimarratu zuen Novalek. "Pertsona Fisikoen Errenten Zergan eskalen progresibotasuna berreskuratu beharko litzateke. Eta, errenta guztiek, gutxienez, lan errentek ordaintzen dutena ordaindu beharko lukete. Sozietateen gaineko zerga ere errotik aldatu beharko litzateke. Tasa nominala %35eko izan beharko litzateke, eta inolaz ere %24 baina gutxiago. Horrekin batera kenkari erregresiboak kendu beharko lirateke".

ELAko idazkari nagusiak, **Adolfo Muñoz**ek, ideia hori hartu zuen bere parte-hartzea hasteko. "Fiskalitatea eztabaida politikoaren erdian kokatu beharra dago; egun ez dago. Eztabaida zabaldu nahi dugu jakin nahi dugulako zergatik gure ogasunek ez duten nahi presio fiskala EB-28ko bataz-bestekoaren parekoa izatea. Fiskalitatea botere ekonomikoek baldintzatzen dute, eta gobernuak morroi hutsak dira. Anekdota bat aipatuko dut. Duela gutxi telebista publiko batetik –ETB– deitu gintuzten, eta honakoa proposatu ziguten: gai honen inguruko eztabaida bat Bizkaiko Foru Aldundiko arduradunekin. Guk, noski, baietz erantzun genien, irrikitan baikaude gisa honetako eztabaida publiko bat egiteko. Zoritxarrez, Bizkaiko Foru Aldundiak uko egin dio, eta eztabaida bertan behera uztea erabaki dute telebista publikoko arduradunek".

Muñozek salatu zuenez kapitalak eta aberatsek erabaki irmo bat hartu dute: zergarik ez ordaintzea. "Erabaki dute ez dutela ordaindu nahi, eta agintari politikoen ezinbesteko laguntzarekin lortu dute helburua. Iaz Donostian egin genituen udako ikastaroetan Ignacio Zubiri katedradunak esan zuen bezala, hemen enpresa batzuk gutxi ordaintzen dute, eta beste batzuk ezer ere ez. Ezkerrak eztabaida horri ekin behar dio. Ikusi zer gertatu den azken urteetan Europan. Zein herrialdek izan dute bilakaerarik onena azken urteetako abagune ekonomikoan? Presio fiskal altuena dutenak. Eta nortzuk dira egoera honen ondorio latzenak sufritzen ari direnak? Presio fiskal baxuena eta zerga iruzur handienak dituzten herrialdeak".

*Es la clase trabajadora la que soporta la fiscalidad; las rentas altas y el capital han decidido no pagar impuestos*

## Cuando se cumple un año de las elecciones autonómicas, Mitxel Lakuntza pide convicción, audacia y valentía al gobierno navarro en su acción de gobierno

# “EL CAMBIO ESTÁ POR LLEGAR”




**Al cumplirse un año desde las últimas elecciones forales, ELA ha elaborado un documento político en el que actualiza su reflexión sobre el nuevo tiempo político que vive Navarra, analiza la acción del gobierno durante estos meses y reafirma la apuesta del sindicato por el cambio social y político. Mitxel Lakuntza –en el centro de la imagen junto a Iván Giménez y Ainhoa Fernández, responsables de ELA en Navarra– nos desgrana las líneas centrales del citado documento.**

**-¿Cuál es el punto de partida de la reflexión política que realiza el sindicato en Navarra?**

-Para nosotros es muy importante tener en cuenta dos aspectos: por un lado, que la pérdida del poder institucional por parte de UPN y PSN no supone, por sí sola, la desaparición de una estructura de poder más amplia, eso que llamamos régimen; por otro, que el cambio de gobierno no significa tampoco, en sí mismo, un cambio social: requiere un cambio radical de las políticas presupuestarias, fiscales y sociales.

**-En julio de 2015, ELA hizo pública su valoración del Acuerdo Programático alcanzado por Geroa Bai, EH Bildu, Podemos e Izquierda-Ezkerra, que iba a marcar la acción del nuevo gobierno. En esa valoración mostrábamos nuestra preocupación porque el acuerdo no incorporaba dos cuestiones centrales: el cambio de la fiscalidad y otro modelo de relaciones laborales. Con la perspectiva que da el tiempo transcurrido, ¿qué podemos decir de la acción de gobierno en estos ámbitos?**

-La reforma fiscal y el presupuesto de 2016 son coherentes con el contenido del Acuerdo programático: son claramente insuficientes y nada tienen que ver con la exigencia de un cambio radical de las políticas.

La reforma fiscal aprobada por el cuatripartito es un mero retoque cosmético respecto a la política fiscal anterior. De este modo, Navarra sigue teniendo un sistema fiscal injusto y que recauda poco, debido al fraude fiscal de las rentas no salariales y a la baja tributación de las rentas altas, empresas y capital.

Basta señalar que la recaudación para 2016 se incrementará en 44 millones, y en 83 para 2017, cuando solo la anterior reforma fiscal aprobada en Navarra (planteada por el PSN y aprobada junto a UPN y PP) preveía una pérdida de recaudación de 103,2 millones de euros en 2015 y 2016. Por otro lado, hay que destacar que en la reforma fiscal ni siquiera se menciona el fraude fiscal.

En cuanto a la política presupuestaria, el Gobierno de Navarra ha renunciado a una línea propia al aceptar el límite del déficit público (0,3% del PIB) que se decide en el Estado español, incurriendo en una dejación competencial inaceptable políticamente y con graves consecuencias sociales: seguimos a la cola europea en gasto público en sanidad, educación, vivienda... y tampoco se compensan los recortes de los últimos años.

**-En la valoración del acuerdo programático, ELA decía que el cambio es incompatible con las estructuras clientelares creadas por el régimen. ¿Qué valoración hace el sindicato sobre la acción de gobierno en estos asuntos?**

-Tenemos que partir de lo que ha pasado con los Convenios que el Gobierno asigna a UGT, CCOO y CEN por medio del SNE. Y lo cierto es que la actuación, hasta el momento, no puede haber sido más decepcionante. El nuevo Gobierno ha defendido la actuación del gobierno de Barcina en 2015. De este modo, ha justificado la asignación de 12 millones de euros a esas organizaciones, en algunos casos en claro fraude de ley. Asimismo, en los presupuestos de 2016 ha recogido 5,3 millones de euros para estos Convenios.

**-ELA ha llevado a los tribunales el entramado de subvenciones del Servicio Navarro de Empleo a favor de UGT, CCOO y la CEN.**

-De momento no hemos conseguido que el Gobierno de Navarra elimine estos Convenios, pero nuestra denuncia ha conseguido provocar debate social y desacreditar esa forma de actuar. Los EREs de UGT y CCOO, derivados de la finalización de parte de esas subvenciones, han evidenciado la relación entre esos convenios y las estructuras de estos sindicatos. En el juicio se va a demostrar que la financiación de UGT, CCOO y CEN, durante al menos los últimos 20 años, además de clientelar, antidemocrática y derrochadora, es también ilegal a partir de la Ley estatal de 2015 que obliga a sacar a concurso toda la formación para el empleo. Navarra es la única comunidad autónoma que se ha saltado esa obligación.

**-Tras décadas de exclusión, este Gobierno, sin embargo, sí ha facilitado y reconocido la interlocución con ELA...**

-En lo que se refiere a la gestión del mundo sindical, el Gobierno navarro ha tomado medidas positivas como acabar con la exclusión de ELA y LAB de los órganos de representación, acabar con la fundación Moderna o la subvención para el Consejo de Diálogo Social. Sin embargo, con respecto a este último órgano, ha decidido reactivar la misma Mesa de Diálogo Social, inútil y clientelar, que UPN y PSN aprobaron en noviembre de 2014. En una coyuntura marcada por la estatalización es un acto difícilmente explicable en términos democráticos y de defensa del autogobierno.

**-No todo son críticas a la actuación del nuevo gobierno.**

-Dentro del terreno de los privilegios y el clientelismo, en relación al Opus Dei la decisión más positiva ha sido la no renovación del convenio que ha conllevado el paso a la asistencia sanitaria en la red pública de los trabajadores de la Clínica Universitaria y la Universidad de Navarra.

En el terreno de la diversidad cultural y política es donde más se ha podido notar las medidas. En positivo hay que citar la extensión del modelo D a toda Navarra, las ayudas y promoción de medios en euskera (licencia para Euskalerria Irratia, captación de ETB, más recursos económicos…), la recuperación de las ayudas para los euskaltegis (AEK e IKA) o la mayor visibilización bilingüe de la información del Gobierno y sus Departamentos. Hay que recordar que está pendiente una nueva ley sobre el euskera y la derogación de ley de símbolos. También valoramos positivamente el reconocimiento político e institucional del conjunto de las víctimas.

Como nota negativa, mencionar la gestión de la OPE de educación en la que el gobierno de Barkos ha acabado reculando ante las fuerzas del régimen.

**-No podemos cerrar este análisis de la acción de gobierno sin valorar su actuación en cuanto empleador.**

-En todo lo que tiene que ver con revisar la política de contratación y licitaciones de la Administración no se ha dado todavía ningún paso. También hay que destacar en negativo la gestión de la paga extra de las y los funcionarios, así como la política de empleo: el nuevo Gobierno hace seguidismo de las tasas de reposición marcadas desde Madrid. Entre las medidas positivas, como consecuencia del trabajo y la presión ejercida principalmente por ELA, solo se puede destacar que finalmente las retribuciones de la nueva ley de policías se aplicarán a partir de octubre con efecto retroactivo desde enero.

**-¿Qué valoración le merece al sindicato la afirmación de la presidenta Uxue Barkos de que renuncia a la “confrontación” con Madrid?**

-El ataque del Estado al autogobierno navarro nos parece muy preocupante: tiene recurridas 17 leyes forales, lo que supone de hecho una suspensión del poder legislativo de Navarra. Estamos ante un conflicto de primer orden. Por ello, nos parece más preocupante aún que Uxue Barkos diga renunciar a la “confrontación”. ¿Qué es lo que queda de un proyecto político cuando no hay confrontación democrática?

**-¿Qué papel va a jugar ELA para conseguir ese cambio real al que aspiramos en Navarra?**

-ELA se reafirma en su papel de agente activo en el cambio real, y trabajará para que la política social se convierta en una prioridad para este Gobierno, a través de la movilización y la interpelación política, social y sindical. ¿Por qué? Porque al régimen sólo se le vence a medio plazo con ideas, determinación y sumando apoyos. Para que la oportunidad no se torne en decepción hace falta mucho más que voluntarismo político; hace falta convicción, audacia y valentía para superar la acción del régimen. Y en el propósito de ampliar la base social favorable al cambio no hay mejor opción que una apuesta decidida por políticas redistributivas que construyan una realidad de mayor justicia social.

**■ ELAk gogoratzen du gobernua galdu arren erregimeneko botere-egiturak indarrean dirautela, sare klientelar eta mediatikoetan eta elite ekonomiko eta enpresarialetan. Erregimenari epe ertainean ere gailentzeko ezinbestekoak dira ideiak, erabakitasuna eta babesak erakartzea. Oraingo abagunea dezepzio bilaka ez dadin boluntarismo politikoa baino askoz gehiago behar da: erregimenari aurre egiteko konbikzioa, ausardia eta kemena.**

**■ Aldaketa nahi duen oinarri soziala hedatzeko modurik hoberena birbanaketa-politika indartsuak egitea da, justizia sozial handiagoa ekarriko dutenak.**

**■ ELAk zinezko aldaketarako eragile aktibo izan nahi du aurrerantzean ere, eta lan egingo du gizarte-politika Gobernu honen lehentasun izan dadin, mobilizazioaren eta interpelazio politiko, sozial eta sindikalaren bidez.**

# LABURREAN / BREVES

## • Nueva semana da huelga en las residencias de Bizkaia

ELA ha convocado una nueva semana de huelga –del 8 al 14 de junio– en las residencias de Bizkaia. Gaizka Miguel y Soraya García, responsables de ELA en el sector, destacan que “ante la falta de respuesta de la Diputación Foral de Bizkaia y el enroque de la posición patronal no nos han dejado otro remedio que seguir con la jornadas de huelga y movilización. En este sentido, tenemos que recordar que desde que comenzó el conflicto ya llevamos once jornadas de huelga, y el seguimiento ha ido aumentando convocatoria a convocatoria. Por ejemplo, en la última jornada de huelga en el 75% de las 30 residencias más grandes de Bizkaia el seguimiento fue muy muy mayoritario, y en el resto de residencias, centros de día y viviendas comunitarias donde ELA tiene representación el respaldo también fue muy importante”.

Miguel y García destacan que las patronales del sector –GESCA, LARES, ELBE– siguen teniendo nula voluntad negociadora. “No quieren atender a las demandas de las trabajadoras que mantienen a duras penas la calidad asistencial en unas condiciones de trabajo cada día más precarias. Nos quieren ver instaladas en la más absoluta precariedad, y no lo vamos a consentir. Además, es necesario denunciar la posición que mantiene la Diputación Foral de Bizkaia. Siguen dando cobertura a las posiciones patronales y siguen sin reunirse con el sindicato convocante de la huelga”.




## • Greba mugagabea Ondulinen

Gallartako Onduline enpresako langileek greba mugagabea hasi zuten maiatzaren 26an. Grebak hiru helburu ditu: lanpostuak mantentzea, etorkizunari begira bideragarritasun plan bat lantzea eta hitzarmenaren negoziazioa abiaraztea. ELAk gogor salatu nahi du zuzendaritzaren jarrera. Izan ere hamaika saiakera egin ditu greba eskubidea urratzeko. Esaterako, lan kargak beste lantoki batzuetara bideratu ditu eta, gainera, aldi-baterako enpresa baten bidez langileak kontratatu ditu.

## • Errausketarekin Gipuzkoako Aldundiak negozioari ematen dio lehentasuna osasunaren aurretik

Gipuzkoan hondakinen kudeaketaren gaia eztabaidagai izan da azken urteetan, eta ez dirudi oraindik bukaerara iritsi garenik. Horregatik, ELAren ingurumen sailak Gipuzkoako hondakinen kudeaketaren inguruko balorazioa biltzen duen txostena aurkeztu zuen maiatzaren 25ean. ELAren ingurumen arduradun Ainhara Plazaolak azpimarratzen duenez, Gipuzkoako Foru Aldundiak publiko egin beharko luke 2016tik aurrera indarrean egon behar den Hondakinen Plangintza Integrala.

“Gipuzkoarren eskubidea da egoeraren berri izatea, eta bide batez, erabaki hauetan parte hartzea. Zentzu honetan, ELAk ez du erraustegia hondakinen kudeaketarako azpiegitura gisa onartzen, inongo kasuan, ez hiri hondakinentzat ez eta zementu fabriketan erretzen diren hondakinentzat. Ingurumenarentzat eta osasunarentzat kaltegarriak diren azpiegiturak direlako, eta gainera beste azpiegitura iraunkorragoak baino garestiagoak. Eta informazio falta oso larria izan arren, agerikoa da errausketarekin Gipuzkoako Aldundiak negozioari ematen diola lehentasuna osasunaren aurretik”.

Plazaolaren iritziz, Gipuzkoako hondakinen kudeaketa iraunkorra aurrera eramateko beharrezkoak diren azpiegiturak eraiki behar dira. “Organikoarentzat konpostaje zentroak, beste hondakin motak kudeatzeko zentroak, bereizi gabe jasotzen diren hondakinentzat tratamendu mekaniko-biologikorako zentroa (TMB), eta birziklatu ezin diren hondakinak inertizatzeko eta biltegiratzeko azpiegiturak (zabortegi egokiak)”.

Bestalde, ELAk bat egin zuen martxoaren 29an osasunaren alde Donostian egin zuen giza-katearekin. Martxak Onkologikoa eta Foru Aldundia lotu zituen, eta milaka lagunek hartu zuten parte. Bertan bildutako lagunek argi eta garbi adierazi zuten ez dutela erraustegailurik nahi, eta gisa honetako azpiegitura batek osasunarentzat dituen ondorio larriak salatu zituzten.



## • Eusko Irratiko, EITB-Erakundeko eta EITB-NETeko langileek bi orduko lanuztea egingo dute ekainaren 10ean

2015. urteko uztailaren 31n Auzitegi Konstituzionalak nulutzat jo zuen EAEko sozietate publikoetako langileei 2010. urtetik aurrera ezarri zitzaien %5eko soldata jaitsiera. Hala ere, hamar hilabete igaro diren arren, EITBren zuzendaritzak ez du inolako urratsik eman langileei modu bidegabe eta ilegalean kendutako diru hori itzultzeko. Hori dela-eta Eusko Irratiko (Radio Vitoria, Radio Euskadi, Euskadi Irratia), EITB-Erakundeko eta EITB-Neteko langileek mobilizazioetan urrats bat haratago joatea erabaki dute, eta ekainaren 10erako bi orduko lanuztea deitu dute.

## • Mobilizazioak Tutera eta Buñueleko GE-Alstom-en

Tuterako Parke-Biltegiaren langileek maiatzaren 20tik greban daude; Buñuelekoak, berriz, maiatzaren 30an ekingo diote grebari. Enpresaren zuzendaritzak Estatuan dituen lantoki ezberdinetan ehunka langileren kaleratzea jasotzen duen plana aurkeztu du, horietako asko Nafarroan. ELAk lanpostu guztiak eta lan zentro guztien jarduera defendatuko du, edozer planteamenduaren gainetik. ELAk gainera, irmoki defendatuko du Tutera eta Buñueleko langileei dagozkien negoziazio guztiak Nafarroan kokatu behar direla.




## • Bizkaiko etxez-etxeko langileek mobilizazioak hasi dituzte gaur arratsaldean

Zenbait bilera eta batzar egin ostean, Bizkaiko Etxez Etxeko Laguntzaren sektoreko ELAko jarraitzaileek mobilizazioak egiten hastea erabaki dute, sektoreak Bizkaian duen egoera larria dela-eta. Mobilizazioak Bizkaia osora zabalduko dira. Protesten bidez sektorearen egoera larria salatu nahi dute Bizkaiko 1.800 langileek.

**www.ela.eus / @ELAsindikatua / ELA-Facebook**

ELA EUSKAL SINDIKATUA astekaria

Barrainkua 13, Bilbao
Tel. 94 403 77 00
Fax 94 403 77 66

Dep. legal BI-199-00

www.ela.eus

**Franqueo concertado
nº 08/207**